

Hona lehengo asteko adibidea:

Herriko bertso-taldea izan daitekeenaren isla: hiru-lau bertsolari on samarrak hogeita hiru-lau urtekoak, bertso-gintzan plazaratuak jada eta norainoko bidea egin zezaketen probatu eta frogatu nahi zutenak.



Andoni Egaña, *Hogeita bina*, 2004



Hona lehengo asteko adibidea:

*Herriko bertso-taldea izan daitekeenaren isla: hiru-lau bertsolari on samarrak hogeita hiru-lau urtekoak, bertso-gintzan plazaratuak jada eta norainoko bidea egin zezaketen **probatu** eta **frogatu** nahi zutenak.*



Andoni Egaña, *Hogeita bina*, 2004



Probatu eta frogatu

Inoiz nahasten ditugu bi aditz horiek.
Esanahi ezberdinak dituzte, hala ere.



Zera esan nahi du *frogatu* aditzak:
froga bidez agerrarazi, demostratu.

- Louis Verrey suitzar oftalmologoak *frogatu* zuen lehenbizikoz garuneko alde jakin batzuen lesioak sor zezakeela akromatopsia.
- Hori datuekin *frogatu* behar da.



■ *Hori datuekin *probatu* behar da.



Probatu aditzak hainbat esanahi ditu.

1. Zerbait, omen den bezalakoa ote den, saio edo azterketa bidez egiaztatu.

■ *Lagunak probatzeko esan zuen hori.*

■ **Lagunak frogatzeko...*

■ *Adiskidea gauza txikian behar da probatu, handian enplegatu.*

■ *Sutan jartzean probatzen da nolakoa den eltzea.*

■ *Letraduak badaki; probatuak hobeki.*



Probatu aditzak hainbat esanahi ditu.

2. Elkarren indarrak neurtu, lehiatu.

*Aditzera eman biar det
euskalduntarren tartian
sega-apostu bat nola genduban
Gipuzkoa'ko partian,
Iturrioz'ko sorua deitzen
diogun toki batian;
deskansurikan ez degu izan
alkar probatu artian.
(Nor-nork: elkar probatu dugu)*



(Bertso berriyak Begi-Txikiyak esan da Txirritak jarriyak, 1930)

Probatu aditzak hainbat esanahi ditu.

2. Elkarren indarrak neurtu, lehiatu.

*Edadekorik bada
nere kontra atera,
trinkete ta pelotaz
berari aukera;
lenbizi zer jokatu
egiñik papera,
ark nai duan tokiyan
probatuko gera. (Nor)*

(Txirrita, Bertso berriak)



Probatu aditzak hainbat esanahi ditu.

3. Dastatu.

- *Freskagarria da **probatu** dugun ardoa: bizia eta edateko erraza, garratzasun puntua baduena.*
- *Dena ezagutu nahi zuen, dena **probatu** nahi zuen; eta gero, hori guzia egiñik, aukeratu egin zuen.*

